

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

317/2021 Foru Agindua, abuztuaren 25ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 10eko 273/2019 Foru Agindua, Itelazpi SA sozietateak kudeatzen duen eta Santikurutze Kanpezuko herriaren "Cebollero" izeneko onura publikoko 235. mendian kokatuta dagoen "loar" telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatzen duena

Ekainaren 10eko 273/2019 Foru Aginduaren bidez, administrazio emakida eman zitzaion Itelazpi SA sozietateari, Santikurutze Kanpezuko herriaren "Cebollero" izeneko onura publikoko 235. mendian kokatuta dagoen "loar" telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatu zezan.

Foru agindu horren bigarren xedapeneko 6. eta 7. apartatuek hau ezartzen dute: Kanona urtero berrikusiko da, aurreko hamabi hilabeteetako KPlaren arabera eguneratuko diren aleko prezioak aplikatuta azaleraren baldintzei, dorrearen altuerari eta kanona eguneratzean instalatuta dauden elementuei, irizpide gisa hartuta 1. dokumentuan (txosten tekniko-ekonomikoa: loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 235 mendia okupatzeagatik kanonaren kalkulua) adierazitakoak, eta berrikuspena egingo da okupazioa arautzen duen foru agindua aldatzearen bidez. Okupazioaren emakidaren datatik urtealdia bete aurreko 15 egunetan, enpresa emakidadunak txosten bat bidali beharko du elementu instalatuen datuak eguneratuko dituen. Kanonaren urteko berrikuspena egiteko balioko du.

Itelazpi SAK aipatutako zentro igorlean dauden instalazioen zerrenda eguneratuari buruzko datuak eman ditu, 2020ko abenduaren 15ean eta 2021eko maiatzaren 17an, horixe eskatzen baitzen aipatutako xedapenean.

Urteko kanona berrikusteko, Mendi Zerbitzuak eskatuta, Tragsatec enpresak txosten tekniko-ekonomikoa egin du (loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 235 mendia okupatzeagatik kanonaren kalkulua) 2021eko uztailaren 16an.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta Nekazaritza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenen indarrez, eta Arabako Foru Aldundiko Sailak 2019-2023 Legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea ekainaren 10eko 273/2019 Foru Aginduaren bigarren xedapena aldatzeari, datu eguneratuak jasotzeko (besteak beste, ordaindu beharreko kanona), eta beste baldintza batzuk egokitzeko. Beraz, jabari publikoaren erabilera pribatiborako administrazio emakidari baldintza hauek ezartzen zaizkio:

1. Kokapena, okupazio eremua, linea elektrikoaren okupazioa eta instalazio nagusiak.
 - Kokapena: Kanpezuko udalerriko 1. poligonoko 2847 eta 3685 zenbakiko katastro lurzatiak, Santikurutze Kanpezuko herriaren "Cebollero" izeneko onura publikoko 235. mendikoak.
 - Igorpen zentroko instalazioak kokatuak dauden okupazio azalera: 747,34 m² guztira.
 - Linea elektronikoaren okupazio azalera: 12 m², lurazpiko lineakoak (12 m luze eta 1 m zabal).
 - Instalazio nagusiak: 63 metroko garaierako komunikazio dorrea, 282 eta 13 m²ko 2 etxola, energia elektrikoaren hargunea eta perimetro itxitura.

2. Zentrorako sarbidea. Itelazpi SAk Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako toki erakundeen onura publikoko mendietan eta herri jabariko mendietan ibilgailu motordunen zirkulazioa arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 9ko 10/2010 Foru Dekretuak (ALHAO, 2010eko martxoaren 22koa) ezarritako baldintzak bete behar ditu. Horrenbestez, erakunde titularren baimena beharko dute aipatutako legearen 8. artikuluan jasotako kasuek.

Sartzeko bide nagusia erabiliko da, eta ezin izango dira hara sartzeko beste bide batzuk erabili, lehenago erakunde titularrak baimena ematen ez badu.

3. Erantzukizunak. Itelazpi SAk bere gain hartuko du zentro igorlearen kudeaketaren eta ustiapenaren ondorioz baimendutako eremuan nahiz okupazio azaleratik kanpo hondatu daitezkeen eremuak leheneratzeko ardura.

Enpresa esleipendunak du instalazioaren ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalteen gaineko erantzukizun zibila.

4. Okupazio epea 30 urtekoa da, 2019ko ekainaren 10etik aurrera zenbatzen hasita, orduan ebatzi baitzen okupazioaren erregularizazioa foru agindu baten bidez, betiere ematen zaion erabilerak bere hartan jarraitzen badu. Gehienez 75 urterako berritu ahal izango da, hori baita toki araubideari buruzko legerian ezarritakoa.

5. Itelazpi SAk Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrari ordaindu beharreko kanona, guztira, 16.385,26 eurokoa da urtean. Zenbateko horretatik, Tragsatec enpresak egindako txosten tekniko-ekonomikoaren arabera (loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 235 mendia okupatzeagatiko kanonaren kalkulua), 16.384,66 euro ordaindu beharko dizkio urtean telekomunikazio zentroaren erabilera pribatiboagatik eta 0,6 euro urtean linea elektrikoak baso jabari publikoa okupatzeagatik.

Itelazpi SAk 2020. urtean ordaindu beharreko kanonari dagokionez, ez denez urteko berrikuspenik egin aurtengo foru agindua aldatzearen bidez, hasieran ezarritako zenbatekoak mantenduko dira; beraz, 15.990,27 euro ordaindu beharko dizkio Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrari.

Ordainketak hilabeteko epean egin beharko ditu Itelazpi, foru aginduaren aldaketa hau jakinarazten denetik aurrera.

6. Kanona 5 urtean behin berrikusiko da dagokion aleko prezioen eguneraketa aplikatuta azaleraren baldintzei, dorrearen altuerari eta kanona eguneratzean instalatuta dauden elementuei, irizpide gisa hartuta txosten tekniko-ekonomikoan adierazitakoak, eta berrikuspena egingo da okupazioa arautzen duen foru agindua aldatzearen bidez.

Horretarako, okupazio kanona berrikusteko ezarritako 5 urteko aldi bakoitza amaitu baino gutxienez sei hilabete lehenago eta gehienez hamabi hilabete lehenago, enpresa emakidadunak txosten bat bidali beharko du instalatutako elementuen datuak eguneratzeko. Kanonaren bost urtean behingo berrikuspena egiteko balioko du.

Dorrearen altuera eta okupazio azalera aldatzearen ondoriozko aldaketak baimena ematen den unean egingo dira.

7. Landaredia garbitzeko lanak, bide ertzak mantentzekoak edo beste edozein esku hartze egin behar izanez gero onura publikoko mendiko landaredian, Mendi Zerbitzuko langileen ikuskaritzapean egin behar dira, hark kontrolatuko ditu-eta egin beharreko sastraka kentze, inausketa eta zuhaitz mozte lanak, langile horiek seinlatu beharrekoa seinlatu eta gero. Jarraituz Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren aginduen arabera egin beharko dira, eta aprobetxamendua, halakorik egonez gero, mendiaren erakunde titularraren onurarako izango da.

8. Okupazio epea beteta, edo baimena ematearen helburu den erabilera lehenago bukatuta, titular kontzesiodunak, gehienez ere urtebeteko epearen barruan, instalazioak kendu eta eragindako lurak lehengoratu beharko ditu.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrari, Itelazpi SAri eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritako moduan.

Foru agindua alderdi interesdunei jakinarazten zaienean, txosten tekniko-ekonomikoaren (Kanonaren kalkulua loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 235 zenbakiko mendia okupatzeagatik) kopia ere bidaliko da.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Foru Agindu honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuari. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorriz: Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 25a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE